



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



## ESKUALDEETAKO BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2018ko urtarrila-otsaila

### 1.- HEZKUNTZA SAILEKO DIRU LAGUNTZAK

Diru laguntzen justifikazioa egiteko ebazpena oraindik ez da aldizkari ofizialean argitaratu. Argitaratzen den datatik aurrera hilabeteko epea dago justifikazioa aurkezteko eta prozedura telematikoaz egin behar da derrigorrez.

Hauk dira bete beharreko pausuak:

1.- Ondoren aipatzen den loturan sakatu eta “Justifikazio” atalean aurkituko duzuen dokumentua bete eta ondoren inprimatu. (Aplikazioak ez dut uzten dokumentua bete ondoren gordetzea) <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/-/dirulaguntza/2017/ampas/>

2. Inprimatu den dokumentua eskaneatu alde batetik eta bestetik fakturak eskaneatu. Datuak betetzerakoan kontutan izan: a) Onartutako dirua bakarrik justifikatu behar dela. b) Onartutako dirulaguntzaren erdia gutxienez formazio gastuak izan behar direla.

3.- Dokumentazioa eskaneatu ondoren bigarren lotura honetan sakatu. [https://www.euskadi.eus/y22izapide2/eu/contenidos/informacion/egoitza\\_nire\\_gestioak\\_laguntza/eu\\_egoitza/sede\\_mis\\_gestiones\\_ayuda.htm](https://www.euskadi.eus/y22izapide2/eu/contenidos/informacion/egoitza_nire_gestioak_laguntza/eu_egoitza/sede_mis_gestiones_ayuda.htm)

“Nire Kudeaketak” atalean sartu eta diru laguntzak eskatzeko klabeak eskura izan tramitazioa aurrera jarraitzeko eta bertan atxikitu eskaneatu diren inprimakia eta fakturak.

### 2.- 2017-2018 IKASTURTEKO IKASLE ATZERRITARREN MATRIKULAZIO DATUAK GIPUZKOAN

Zonalde bakoitzari eta Gipuzkoa osoko datu hauek aurkezten dira:

- 1.- 2017-2018 Ikasle atzerritarren banaketa etapaka.
- 2.- Ikasle atzerritarren matrikulazio hazkundera Gipuzkoan (2010-2018).
- 3.- Herriz herriko datuak.

### 3.- EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN KOHESIO ETA BERDINTASUNA HOBETZEKO “HERRI LEGE EKIMENA” BULTZATZEKO SINADURA BILKETA

HLE ekimenaren sinadura bilketa prozedura elektronikoz bidez jaso ahal izateko azken baimenak burutu ondoren, datozen egunetan ekimena abian jarriko dela uste da.

Gogora arazten da kanpaina lau hilabetez luzatuko dela eta 10.000 sinadura gutxienez lortu behar direla.

#### **4.- HEZKUNTZA ALDEKO AKORDIOA**

Lan taldeen dokumentuak aurkeztuko ditu Hezkuntza sailak Otsailaren 5an.

Dokumentu hoiek aztertu ondoren balorazioa egingo da.

#### **5.- 2017-2018 EBALUAKETA PLANGINTZA**

Urtarrilaren 19an hezkuntza Sailak 2017-2018 Ebaluaketa Plana aurketu du. Hauek dira lerro nagusiak:

1) Etapa erdiko ebaluaketak mantentzen dira lehen bezala. LH4 eta DBH2 ko ikasle guztiek egiten dute. Froga hau berez datorren urtean egingo da baina aurten 40 eskoletan pilotaje bat egingo da. Aplikazio datak (Martxoak 5-16).

2.- Etapa amaierako frogak aurten egingo dira aukeratutako 120/140 eskoletan eta LH6 eta DBH4 ko ikasleek egingo dituzte. Froga honen helburua, ikaslearen irteera profila ezagutzea da. Froga bi egunetan egingo da eta aplikazio datak (LH6 Martxoak 5-22) eta (DBH4 Maiatzak 7-18).

3.-Pisa 2018 froga ere aurten egingo da. 140 eskoletan, 15 urteko 48na ikasle. Froga egun bakarrean egingo da eta aplikazio datak (Apirilaren 16tik Maiatzaren 4ra).

#### **6.- IKASLEAK ONARTZEKO 1/2018 DEKRETU BERRIA.**

Ikasleen onarpena arautuko duen dekretu berria argitaratu berri da.

Hainbat puntuetan aurreko dekretuaren antzekoa bada ere erizpide berri batzuk ezarri dira:

1.- Eskola edo Haurtzaindegi pribatuetako 2 urteko geletan, ez dira onartuko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan itunduta duten ikasle kopurua baino gehiago.

2.- Baremazio puntuaketaren aldaketa batzuk ezartzen dira: 1) Erretaren kontzerpuagatik ountut,erdi (lehen 3 puntu). 2) Kooperatibako bazkide izateagatik puntu erdia (lehen puntu bat).

3)Eskolako Organu Gorenak ezarritako erizpidearengatik puntu bat (lehen bi puntu ziren).

#### **7.- GREBA DEIALDIAK IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN**

Aste honetan burutuko den “mahai sektorialaren “ ondoren jakingo da STEILAS – ELA eta LAB sindikatuek iragarritako greba egutegia aurrera doan.

Sindikatuak luzatutako , familiek grebara deitzeko proposamena ez da egokia ikusten , baina familien inplikazioa Eskola Publikoan dituen baldintzak hobetzeko ezinbestekoa ikusten da. Ondorioz Ehigeri, honako proposamea egitea erabakitzen da: Ordezkapenak, ratioak eta eskola segregazioa salatu eta egun dugun egoera zuzentzeko baliapideak eta neurri eraginkorrak ezartzea aldarrikatuko duen manifestua, eskola publikoko organu goren guztietara eraman bere onarpenerako.